

## **ONARRIZKO UDAL ZERBITZUAK EDO ZERGAK ORDAINTEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROGRAMA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA.**

### 1.- ATALA.

Oinarrizko udal zerbitzuak edo zergak ordaintzeko dirulaguntzak ematea arautzea da programa honen helburua. Dirulaguntza horiek zein motatakoak izango diren, eta jasotzeko zein baldintza bete behar diren zehazten du ordenantza.

### 2.- ATALA.

Ordizian bizi, eta zergak, oinarrizko udal zerbitzuak ordaintzeko behar beste diru-sarrerara ez duten bizilagunentzako dira Programa honen dirulaguntzak. Ekonomi egoera larrian bizi diren bizilagunen egoera hori ez areagotzea da dirulaguntza horiek ematearen helburua.

### 3.- ATALA

Programa honen barruan honako dirulaguntza hauek ditugu:

\* Zergak ordaintzeko dirulaguntzak:

- Ura.
- Zaborrak.
- Estolderia.

\* Udal zerbitzuak ordaintzeko dirulaguntzak:

- Polikiroldegiko ordainketak.

Programa honen barruan beste era bateko dirulaguntzak ere sar daitezke, beti ere, erabakia Osoko Bilkuran hartzen bada.

### 4. ATALA.

Dirulaguntza horiek jasotzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Adinez nagusia izatea.



- b) Ordizian erroldaratuta egotea.
- c) 3. atalean adierazitako gastuak ordaintzeko behar beste diru-sarrera ez edukitzea.

## 5. ATALA.

Zehaztutako beharrei guztiz edo neurri batean aurre egiteko diru-sarrerarik ez duela jotzen da pertsonak edo familia unitateen urteko-diru baliabideek I Eranskinean zehaztutako kopuruak gainditzen ez dituztenean.

## 6. ATALA.

Familia Unitatea ezkontza bidez edo ezkontzaren antzeko lotura bidez osatutako bizikidetzaren unitate bat dagoenean eratuko da; odol-ahaidetasunezko edo adopziozko goitik beherako bigarren mailaraino eta behetik gora lehenengoraino eta ahaidetasunean lehenengo mailaraino.

Ez dute diru-laguntza jasoko etxebizitza bakoitzean familia unitate bat baino gehiagok.

## 7. ATALA.

Dirulaguntzak eman baino lehen, benetan dirulaguntza horren beharra dagoela eta diru-sarrera urria dagoela ziurtatuko da. Dirulaguntza horiek eman diren xede horretarako, eta ez beste ezertarako erabili beharko dira.

## 8. ATALA.

Dirulaguntzak lortzeko eskaerak Udal honetako Gizarte Ongizate Sailean egin beharko dira. Horretarako, eskaera espedientea osatzeko eskatzen den agiri-sorta aurkeztu beharko da. Dirulaguntzak ematea edo ukatzea Alkatetzaren esku geldituko da.

## 9. ATALA.

Udalak, Gizarte Zerbitzuko langilegoa dela medio, emandako dirulaguntza horiek zertarako erabili diren aztertuko du, dirulaguntzak emandako horretarako bakarrik erabili direla ziurtatzeko



## I ERANSKINA

### DIRU-SARREREN BAREMOA (2010eko kopuruak)

	<b>GEHIENEZKO DIRU-SARRERAK</b>	
<b>KIDE KOPURUA</b>	<b>URTEKOAK</b>	<b>HILABETEKOAK</b>
1	DIRU-SARREREN BERME ERRENTA + %20 ( 9.362,74 euro )	DSBE + %20 ( 780,23 euro )
2	DSBE + %20 ( 12.022,56 euro )	DSBE + %20 ( 1.001,88 euro )
>3	DGBE + 20% ( 13.299,26 euro )	DBGE + %20 ( 1.108,27 euro )

### DIRU-SARREREN ARABERAKO LAGUNTZA PORTZENTAIA (2010eko kopuruak)

	<b>GEHIENEZKO DIRU-SARRERAK</b>		
<b>KIDE KOPURUA</b>	<b>%100</b>	<b>%75</b>	<b>%50</b>
1	DSBG (7.802,28 euro )	DSBG + %10 (8.582,51 euro )	DSBG + %20 (9.362,74 euro )
2	DSBG (10.018,80 euro )	DSBG + %10 (11.020,68 euro )	DSBG + %20 (12.022,56 euro )
>3	DSBG (11.082,72 euro )	DSBG + %10 (12.190,99 euro )	DSBG + %20 (13.299,26 euro )

